

BALIO PARTEKATUARI BURUZKO TXOSTENA

once.es • fundaciononce.es • ilunion.com

2024

ONCE Gizarte Taldearen
laburpen exekutibo agregatua

Lagun maiteok:

Hitzek beti izan dute lotzeko, eraikitzeko edo zubiak sortzeko ahalmena. Pertsona itsuen kasuan, hitz horiek beren erliebearekin mundurako ate bat irekitzen diguten puntu bihurtzen dira. Lerro hauen ardatz nagusia braillea osatzen duten **sei puntuak** dira -200 urte bete dituztenak-, eta itsuei zer garen, zer egiten dugun eta zer lortu nahi dugun kontatzeko aukera eman digute.


Eta puntuek gidatzen gaituztenez, pertsona itsu baten hatzek braillez idatzitako testu bat irakurtzean bezala, utz iezadazue gure **abiapuntua** izaten gehien axola zaiguna: **pertsonak**. 2024an, 75.000 langileren mugarría gainditzea lortu dugu, eta **77.000 profesionalekin itxi dugu ekitaldia, kalitatezko enplegu inklusiboa, duina, jasangarria eta ondo baloratua duten profesionalekin, alegia, 5.064 lanpostu berri sortu baitigu ONCE Gizarte Taldean**. Langileen % 60 desgaitasunen bat duten pertsonak gara, eta % 45 emakumeak. Datu horiek argi uzten dute zein den gure helburua, gure eginkizuna, gure xedea eta gure lorpena.

Hori guztia **topagune** batetik egiten dugu, hau da, **ONCEren, ONCE Fundazioaren eta Ilunionen baturatik**. Gure hiru kudeaketa-arloek datu historikoak lortu zituzten aberastasuna sortzeari dagokionez, eta are hobeak gizarteratzeari eta gizarte-aurrerapenei dagokienez. Adibidez, estaldura handitu egin dugu legezko bizilekua Espainian duten edo asilo-eskubidea duten itsuentzat; Ikusmen Txikia ONCE Fundazioa ireki dugu; eta lanean ari gara Unescok braillea Gizateriaren Kultura Ondare Immaterialtzat aitortu dezan.

Amaitzeko, ez dut amaiera-puntu bat erabiliko, **puntu eta jarrai** bat baizik: ONCE Gizarte Taldearen asmoa da enpresa- eta gizarte-kudeaketan duen lidergoa sendotzen jarraitzea, pertsona guztiei, bereziki desgaitasunen bat dutenei edo bazterketa-arriskuan daudenei zuzenduta dagoen kudeaketan, hain zuzen. **Konfiantza-puntu** bat besterik ez diguzue eman behar, eta guk **sei puntuz edo mila puntuz** biderkatuta itzuliko dizuegu.




Miguel Carballada Piñeiro
ONCE Gizarte Taldeko presidentea



ONCE Gizarte Taldea

Itsuentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako gizarte-zerbitzuen munduko emailerik handiena; munduko enplegu-sortzailerik handiena itsuentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat; **Espainian laugarren enplegu-emaila ez-publiko handiena desgaitasuna duten pertsonentzat.**

Pertsonak erdigunean jartzen dituen gizarte-ekonomiako kontzeptu baten liderrak; **maila berean gizartea, fundazioa eta enpresa** batzen dituen eredu batean murgilduta eta horrekin guztiz bat eginda, **marka global bat sortzeko**, arlo bakoitzaren nortasunetik eta etorkizuneko ekintza- eta filosofia-batasunetik abiatuta.

ONCE

Itsuen edo ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen autonomiaren munduko erreferentzia. Loteria arduratsuko, seguruko eta sozialeko produktuen kudeaketan oinarritzen du bere zeregina, kontrol publiko zorrotzaren pean, eta diru-sarrera guzti-guztiak gizarte-itzuleran berrinbertituta.

ONCE Fundazioa

1988an bultzatuta desgaitasunen bat duten gainerako pertsonen estaldura zabaltzeko **eta hiru zutabe banaezinen gainean beren inklusioa sustatzeko: prestakuntza, enplegua eta irisgarritasun unibertsala.**

Ilunion


Taldearen enpresak, oreka ekonomikoa eta soziala, dibertsifikazioa eta iraunkortasuna eta Taldearen **helburu nagusia** lortzea ahalbidetzeko moduko hainbat arlo dituztenak: **desgaitasuna duten pertsonentzat eta bazterketa- arriskuan dauden pertsonentzat enplegua sortzea.**

Enplegu inklusibo eta askotariko gehiago

2024an 5.064 profesional gehiagorekin handitu dugu plantilla, % 7,1eko hazkunde-erritmoan, Estatuko batezbestekoaren bikoitza. Eta desgaitasuna duten edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen bultzada emanez egiten dugu, zailtasun bereziko taldeei arreta emanez, aniztasuna balio erantsi gisa sartzeaz gain.

2024a ixtean, desgaitasuna duten 45.678 pertsona gara; horietatik, 9.363k desgaitasun intelektuala edo psikosoziala dute. Eta, gainera, 120 nazionalitate baino gehiago daude.

Enplegua, generoaren arabera



A) Emakumezkoak	34.654	45%
B) Gizonezkoak	42.302	55%
Guztizkoak	76.956	




Enplegua, desgaitasunaren arabera



A) Desgaitasunik gabeko pertsonak	31.278	40,6%
B) Desgaitasuna duten pertsonak	45.678	59,4%
Guztizkoak	76.956	



Enplegua, desgaitasunaren arabera




Desgaitasuna duten pertsonak, guztira: 45.678

Topagunea

Gure eredu sozioekonomikoa **hazteko aukera bat da berez, eta gizarte-ekonomiaren buru izatea eta sortze-bultzadari eustea ahalbidetzen du.**

Magnitude ekonomikoak

Ilunion



Salmentak milioi eurotan.

ONCE Fundazioa

Diru-sarrerak guztira (milioi eurotan) 2024

ONCE	88,6
Europako Gizarte Funtsa	24,0
Dohaintza pribatuak	1,8
Bestelako diru-sarrerak*	24,4
Guztizkoa	138,8

Gastuak guztira (milioi eurotan) 2024

Enplegu eta Prestakuntza Plana	103,0
Irisgarritasun Plana	33,7
Administrazio-gastuak	1,7
Guztizkoa	138,4
Superabita	0,4

Joko soziala eta arduratsua

Loteriako produktuen salmentak **ONCE Gizarte Taldearen** helburu sozialetara erabat bideratutako baliabideak sortzen ditu. Eta **joko arduratsuaren printzipioak** sinatuta daukagu loteria, euskarri eta kanal guztietako kontrol eta estandar zorrotzenak betez.

%56,2

Sarien ordainketa

%22,3

Agente saltzaileen
soldatak eta gizarte-kargak

%5,8

Afiliatuentzako
gizarte-zerbitzuen prestazioak

%3,2

ONCE Fundazioa eta desgaitasuna
duten beste kolektibo batzuk

%8,5

Jokoaren
zeharkako gastuak

%2,7

Soberakina


%1,3

Kanal Fisiko Osagariaren eta Internet
Kanalaren komisiok eta konpentsazioak

1.591,4

milioi euro
sarietan
banatuta.

ONCEren loterien salmentengatiko diru-sarrerak
(milioi eurotan).



Funtsezko puntuak

Munduko enplegu-
sortzailerik handiena
desgaitasuna duten
pertsontzat eta
Espainian laugarren
enplegu-emaile
globala.

254
milioi euro
zuzeneko
gizarte-inbertsiora
zuzenduta.

Arreta
71.444
pertsona
itsurentzat, 3.359
afiliatu gehiago
2024an.

77.000
langile,
% 60 desgaitasuna
duten pertsonak eta
% 45 emakumeak.

10 urte
Ilunion,
fakturazio
handiagoa
enplegu

ONCE Fundazioak
2.234
proiektu onartu
zituen enplegu-
prestakuntza- eta
irisgarritasun-arloetan,
eta 136,7 milioi euro
banatu zituen
horretarako.

602.133
prestakuntza-
ordu.



BALIO
PARTEKATUARI
BURUZKO
TXOSTENA



BALIO PARTEKATUARI BURUZKO TXOSTENA

ONCE Gizarte Taldearen
laburpen exekutibo agregatua